

HAMAR URTE HORI EZ DA EZER!!!

Posted on 21/05/2014 by Naider

Category: [Albistea](#)

Naider proiektuko lagun maiteok,

Gaur, 2014ko maiatzaren 21ean, Naider sortu zenetik hamargarren urteurrena beteko da. Pantailaren alde honetan gauden guztiontzat zita sinbolikoa baino ez da, baina umiltasunez partekatu nahi izan dugu Naideren bizitzaren lehen tarte hau posible egin duten guztiekin.

Lerro hauekin zuekin partekatu nahi dugu datozen hamar urteetarako gure konpromisoa bere horretan jarraituko duela: ahalegina, erantzunkidetasuna eta zorroztasuna elkarrekin aurrera egiten jarraitzeko gizarte justuago, ekonomikoki lehiakorrago eta ekologikoki arduratsuago baterantz. Baina, batez ere, ohar honekin nahi duguna da bihotz-bihotzez eskertzea zure ametsak modu batera edo bestera partekatzeko jarri duzun konfiantzagatik eta oker egon garen bakoitzean gurekin izan duzun gogoetarik.

Gure web plataforma berria arakatzera gonbidatzen zaitugu www.naider.com non orain arte egin ditugun gauza guztiak biltzen diren eta jada zuetako askorekin bidaiatzen ari garen abentura berriak marrazten diren.

Eskerrik asko denoi eta gogoratu ezina ekinez egiten dala!!

Besarkada haundi bat zuen etxetik,

